

80KO HAMARKADAKO GAZTEAK

80ko hamarkadako gazteak testua irakurri ondoren, erantzun galdera hauei.

1. Zer diote garai hartako zaletasunei buruz?
 - a. Amaiak dio politika gustatzen zitzaiola, Albertok futbolean jokatzeko eta Idoiak dantzalekuetara joatea.
 - b. Giro eta zaletasun ezberdinak zeudela diote; Amaiak parranda egitea zuen gogoko, Albertok mendira joatea eta Idoiak dantza egitea.
 - c. Amaiak dio pop musika eta porroak zituela gogoko, Albertok pilotan jokatzeko eta Idoiak dantza lotua.
2. Zer diote arropa-kontuen inguruan?
 - a. Sos batzuk irabazten zituztenean anai-arreba zaharrentzat Levi's galtza bakeroak erosten zituztela.
 - b. Anai-arreba zaharren arropak jantzi behar izaten zituztela.
 - c. Gustatzen zitzaizkien arropak jantzen zituztela; adibidez, Levi's galtza bakeroak.
3. Gurasoekin zuten harremanari buruz zer pentsatzen du Albertok?
 - a. Gurasoekin zuten harremana orain beren seme-alabekin dutena baino naturalagoa zela, nahiz eta gauza asko ezkutuan egiten zituzten.
 - b. Egun gurasoek badakitela zertan dabiltzan beren seme-alabak, nahiz eta gehiegi edaten duten.
 - c. Seme-alabekin duten harremana beren gurasoekin zeukatena baino naturalagoa dela; hobeto dakitela zertan dabiltzan, baina haiek beren esparrua behar dutela.
4. Zer dio Idoiak garai hartako sexu-harremanei buruz?
 - a. Haiek ez zekitela aurreko belaunaldikoek baino gehiago.
 - b. Aurreko belaunaldikoek baino dezente gehiago zekitela gai horri buruz, zinean ikusten zutelako eta lagunaren artean hitz egiten zutelako.
 - c. Aurrekoek baino zerbait gehiago bazekitela, filmei eta beren artean kontaktzen zutenari esker, baina etxean horri buruz ez zela hitz egiten.
5. Zer dio Amaiak ikasketei buruz?
 - a. Ikasketak errazago uzten baziren ere garai hartako neskek garbi zutela etxetik kanpo lan egingo zutela eta independenteak izan nahi zutela.
 - b. Garai hartako neskek, nahiz eta garbi izan independenteak izan nahi zutela, etxeoandreak zirela, aurrekoak bezala.
 - c. Nahiz eta ezkondu eta etxean gelditu, garbi zutela independenteak zirela.